



# elika

Fundación Vasca para la  
Seguridad Agroalimentaria  
Nekazaritzako Elikagaien  
Segurtasunerako  
Euskal Fundazioa



# RASFF TXOSTENA

## ELIKAGAIAK

## ALERTAK - JAKINARAZPENAK

Jakinarazpenen kategorizazioa

Jakinarazpenen jatorria


Kutsadura iturrien sailkapena

Kutsatzaile nagusiak eta inplikaturako elikagaiak

**2024ko BIGARREN LAUHILEKOA**


### JAKINARAPENEN KATEGORIZAZIOA

2024ko bigarren lauhilekoan elikagaiei buruzko 1534 jakinarazpen izan dira. Horietatik **363 alertak izan dira (%23,5)**, **638 informazio-jakinazpenak (%41,5)** eta **533 mugan egin diren ukapenak (%35)**.



### JAKINARAZPENEN JATORRIA

Kutsatutako produktuen jatorrizko herrialdeak hurrengoak izan dira:




Asiari dagokionez, kutsatzaileen % **25,5a Indiakoak** eta % **21a Turkiakoak**. Europari dagokionez, jakinarazpen gehien sortu dituzten herrialdea **Polonia** izan da, % **15**arekin, bigarren **Herbehereak** izan delarik % **11**arekin. **Afrikaren** kasuan, **Egiptok**, jakinarazpenen %**38** izan ditu eta **Amerikaren** kasuan **EEBB** %**40,5**arekin dira jakinarazpen gehien sortu dituztenak.

### KUTSADURA ITURRIEN SAILKAPENA

2024ko bigarren lauhilekoan zehar, Europako Informazio Azkarraren Sistemak (RASFF) **elikagaien 1534 alerta eta jakinarazpen** berri eman du. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura iturriei dagozkien zenbatekoak honako hauek dira:

Kutsadura iturria	%
Kutsadura biologikoa	% 23,5
Hondakinak	% 23
Iruzurrak	% 19,5
Toxiko naturalak	% 14,5
Kutsadura kimikoa	% 7,5
Higiene-egoera txarra	% 4,5
Metal astunak	% 4
Kutsadura fisikoa	% 3,5



## KUTSATZAILE NAGUSIAK ETA INPLIKATUTAKO ELIKAGAIAK

Toxiko naturalek eragindako kutsaduren artean, kasu gehienetan, % 70an, kutsadura **AFLATOXINEK** eragindakoa da eta, horrelakoetan **KAKAHUETEA** kutsaduren % 48,5a eragin du. Kasu gehienetan, % 56an, kakahuetea **EEBB**etatik zetorren. **PISTATXOA** azaltzen da bigarren postuan, %14arekin. Kasu honetan, **IRAN** jatorriarekin %46an.

**Kutsadura biologikoei** dagokienez, **SALMONELEK** kutsaduren %66a eragin ditu. *Salmonella sp* da talde honetako protagonista nagusia kasuen % 85an. **OILASKOA** izan da produktu protagonista %56ko kasuetan, %61,5eko kasuetan **BRASIL** jatorria zelarik. Beste salmonelei dagokienez, %11a *Salmonella enteritidis* dagokio. **OILASKOAK** eragin ditu kasuen % 92a eta % 62,5eko kasuetan **POLONIA** izan da jatorria eta % 4a *Salmonella typhimuriumi*, eta kasu honetan ere **OILASKOA** protagonista delarik (%60a).

Kutsadura biologikoein jarraituz, *Listeria monocytogenes* bakteriak jakinarazpenen %16,5a eragin ditu, **GAZTA mota desberdinak** %30,5an inplikatuta egonda, **FRANTZIA** jatorrikoa %45ean..

Fitosanitarioen eta sendagaien hondakinei dagokienez, **FITOSANITARIOAK** %95 izan dira. Nabarmentzen dira **hainbat fitosanitarioen** presentziagatiko jakinarazpenak (%50). **Piperrek, arrozak, babarrun berdeek eta landare aromatikoek** beste fruta eta barazki batzuek baino jakinarazpen gehiago dituzte. Gehienak **Asia** eta **Afrikatik** datoz.

Sarearen bidez jakinarazitako **iruzur** guztietatik, % 41,5 **debekatutako substantziengatik** izan dira edo **baimendu gabeko osagai berriak** hainbat elikagaitan. **ELIKADURA OSAGARRIAK** nabarmentzen dira kasuen % 75ekin, Internet bidez saldu baitira kasuen % 25.

Bestalde, %26,5 **ETIKETAN ALERGENOAK EZ DEKLARATZEARI** dagozkio.

